

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/03/26



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

26/03/2008

Organoa edo Batzordea: Osoko Bilkura.
Bilera-mota: ohikoa.
Eguna: 2008/03/26
Ordua: Hasiera: 19:30 eta bukaera: 20:10
Tokia: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

Bertaratuak:

Sotero Plazaola Odriozola, alkatea.
Mikel Alzelai Zulaika, ANV Talde Politikoko zinegotzia.
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain, ANV Talde Politikoko zinegotzia
Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia
Francisco Javier Iraeta Alvarez, EAJko zinegotzia
Juan Miguel Urrutia Castillon, EAJko zinegotzia
Juan Ramon Larrañaga Mercero, EAKo zinegotzia
M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, EAKo zinegotzia
Vicente Garmendia Martinez, EAKo zinegotzia
Iñaki Sanchez Gastañares, EB-BERDEAK taldeeko zinegotzia
Ana Salinero Maestre, atxiki gabeko zinegotzia
Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEeko zinegotzia
Jose Morcillo Guerrero, PSE-EEeko zinegotzia
Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.
Jon Mikel Garagarza Roteta, idazkaria.

Aztergaiak:

1. Bidezkoa bada, joan den 2008/02/27ko bilkurari dagokion akta onartzea.
2. Batzorde informatiboen berrantolaketa.
3. Gipuzkoa eta Donostia Kutxarako kontseilari orokorra eta bere ordezkoa izendatzea.

EUSKARA

4. Legazpiko hizkuntza politikaren 1. neurketa egiteko proposamena.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:

5. Bidezkoa bada, Legazpiko Hiri-Antolamendurako Plan Orokorrean ingurumen inaktuaren behin betiko txostenaren justifikazioa onartzea.

LANGILEGOA:

6. Bidezkoa bada, 2008. urterako plantilla organikoa eta langileen lanpostuen zerrenda onartzea.

Organo o Comisión: Pleno.
Tipo de Convocatoria: Ordinaria.
Día: 26/03/2008
Hora: Comienzo: 19:30 y final: 20:10
Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Asistentes:

Sotero Plazaola Odriozola, alcalde.
Mikel Alzelai Zulaika, concejal del Grupo Político ANV.
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain, concejal del Grupo Político ANV
Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV
Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV
Juan Miguel Urrutia Castillon, concejal de PNV
Juan Ramon Larrañaga Mercero, concejal de EA
M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, concejal de EA
Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA
Iñaki Sanchez Gastañares, concejal de EB-BERDEAK
Ana Salinero Maestre, concejal no adscrita
Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE
Jose Morcillo Guerrero, concejal de PSE-EE
Fernando Arakama Fernández, interventor.
Jon Mikel Garagarza Roteta, secretario.

Orden del Día:

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 27/02/2008.
2. Reordenación Comisiones informativas
3. Nombramiento de un consejero general y suplente para la Caja de Gipuzkoa y San Sebastián.

EUSKERA

4. Propuesta para medir la política lingüística de Legazpi.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

5. Aprobación, si procede, de la justificación del cumplimiento del informe definitivo de impacto medioambiental en el Plan General de Ordenación Urbana de Legazpi.

PERSONAL:

6. Aprobación, si procede, de la plantilla orgánica y de la relación de puestos de trabajo para el año 2008.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/03/26



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

26/03/2008

ALKATETZA:

7. Olaria saria.
8. Luzatu diren dekretuen berri ematea.

MOZIOAK

9. Isaías Carrasco erailketa dela eta, PSE-EE taldeak aurkeztutako erakunde adierazpena.
10. Eskariak eta galderak

Esan-eginak eta erabakiak:

1. Bidezkoa bada, joan den 2008/02/27ko bilkurari dagokion akta onartzea.

Guztiek aho batez onartu dute aurreko bileraren akta.

2. Batzorde informatiboen berrantolaketa.

Alkateak hartu du hitza. Jakingo duzuen bezala, joan den 2008ko martxoaren 13an sinatutako dekretuaren bitartez, Alkate bezala Ogasuneko eta Auzoak, Ingurumena eta Etxebizitza batzordeen eskuduntzak bereganatu nituen. Hori horrela izanik, eta Antolamendurako Arautegiaren 124.1 artikulua xedatutakoari jarraituz, Auzoak, Ingurumena eta Etxebizitza Batzordea, Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak Batzordera pasako da bere eskuduntza guztiekin.

Segidan, zalantza sortu da ea gai horren gainean bozkatu behar den. Idazkariak Antolakuntza- eta Jarduera-Araudiaren 124.1. artikulua irakurri du eta gaia argituta geratu da.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, ondoko botoekin onartu da: EAE talde politikoaren aldeko hiru botorekin eta gainerako zinegotzien abstentzioarekin.

3. Gipuzkoa eta Donostia Kutxarako kontseilari orokorra eta bere ordezkoa izendatzea.

Alkateak hartu du hitza. Indarrean dagoen legeria aztertuta eta Kutxan egin beharreko kontsulta egin eta gero, Osoko Bilkurak Gipuzkoa eta Donostia Kutxarako kontseilari orokor bat eta bere ordezkoa izendatu behar dituela jakin da.

ALCALDIA:

7. Premio Olaria.
8. Dar cuenta de los decretos dictados.

MOCIONES

9. Declaración institucional presentada por el PSE-EE en relación con el asesinato de Isaías Carrasco.
10. Ruegos y preguntas.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 27/02/2008.

Por unanimidad de los presente se acuerda la aprobación del acta anterior.

2. Reordenación Comisiones informativas

Toma la palabra el Sr. Alcalde. El 13 de marzo de 2008 firmé un decreto mediante el cual asumo como Alcalde las presidencias y competencias de las Comisiones de Hacienda y Barrios, Vivienda y Medio Ambiente. Dada esta situación, propongo al Pleno, en virtud del artículo 124.1 del Reglamento de Organización y Funcionamiento, que la Comisión de Barrios, Vivienda y Medio Ambiente se integre con todas sus competencias en la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios.

A continuación surge alguna duda sobre si hay que votar la cuestión. El Secretario da lectura del artículo 124.1 del Reglamento de Organización y Funcionamiento, quedando aclarada la cuestión.

Sometida la cuestión a votación se aprueba la misma, con los voto a favor de los tres concejales del Grupo Político de ANV y las abstenciones del resto de corporativos.

3. Nombramiento de un consejero general y suplente para la Caja de Gipuzkoa y San Sebastián.

Toma la palabra el Sr. Alcalde. Analizada la legislación en vigor y tras consultarlo con la Kutxa, el Pleno ha de nombrar a un consejero general y a su suplente. En principio, puede optar a los puestos cualquier persona.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/03/26



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

26/03/2008

Printzipioz, edozein pertsonak bete ditzake kargu horiek.

EAJ eta EA talde politikoek kontseilari gisa Ane Urkiola Alustiza aurkeztu dute eta ordezkoa Arantza Arizmendi Gereñu zinegotzia. PSE-EE talde politikoak kontseilari gisa Oscar Murillo eta ordezkoa Jose Morcillo zinegotziak proposatu ditu. Idazkariak lehenengo titularra izendatzea eta gero ordezkoa erabakitzea proposatu du.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren Ane Urkiola zinegotziak sei boto jaso ditu (3 EAJ eta 3 EA) eta Oscar Murillo zinegotziak hiru (2 PSE-EE2 eta atxiki gabeko zinegotziaren botoa). Modu berean, lau abstentzio eman dira (3 EAE talde politikoarena eta bat EB-Berdeak taldeko zinegotziarena). Beraz, Kontseilari nagusia Ane Urkiola Alustiza zinegotzia izendatu da.

Ordezkoa izendatzeko botoei dagokienez, Arantza Arizmendi Gereñu zinegotziak sei boto jaso ditu (3 EAJ eta 3 EA) eta Jose Morcillo zinegotziak 3 (2 PSE-EE taldearena eta atxiki gabeko zinegotziarena). Modu berean, lau abstentzio eman dira (3 EAE taldearena eta bat EB-Berdeak taldeko zinegotziarena). Beraz, kontseilari ordezkoa Arantza Arizmendi Gereñu zinegotzia izendatu da.

EUSKARA

4. Legazpiko hizkuntza politikaren 1. neurketa egiteko proposamena.

Mikel Alzelai zinegotziak hartu du hitza. Euskara Batzordeak honako irizpen hau onartu zuen:

Kontseiluak aurreko legealdian 10.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietako hizkuntza politikaren 1. neurketa egin zuen eta ondoren argitara eman zituen emaitzak.

Legealdi honetan 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten hainbat herritan egin nahi du neurketa hori eta proposamena luzatu dio Legazpiko Udalarari. Neurketa horrekin herriaren egoera ezagutuko genuke, hizkuntzaren ikuspegitik beti ere, eta hori interesgarria izan daitekeela uste du Euskara Batzordeak. Izan

PNV y EA presentan a Ane Urkiola Alustiza y Arantza Arizmendi Gereñu, como titular y suplente respectivamente, y el PSE-EE presenta a Óscar Murillo y José Morcillo. No hay más candidatos ni candidatas. El Secretario propone que primer se vote a la titular y a continuación a la suplente.

Sometida la cuestión a votación, como titular Ane Urkiola obtiene seis votos (PNV y 3 EA) y Óscar Murillo tres (2 PSE-EE y uno de la Concejala no adscrita), así mismo se registran cuatro abstenciones (3 del Grupo Político ANV y uno del Concejal de EB – Berdeak). Se designa a Ane Urkiola Alustiza como Consejera General.

Respecto a la votación de la suplente, Arantza Arizmendi Gereñu obtiene seis votos (PNV y 3 EA) y José Morcillo Guerrero tres (2 PSE-EE y uno de la Concejala no adscrita), así mismo se registran cuatro abstenciones (3 del Grupo Político ANV y uno del Concejal de EB – Berdeak). Se designa como suplente a Arantza Arizmendi Gereñu.

EUSKERA

4. Propuesta para medir la política lingüística de Legazpi.

Toma la palabra Mikel Alzelai. La Comisión de Euskera aprobó el siguiente dictamen:

Kontseiluak realizó en la anterior legislatura un primer estudio o medición sobre la situación de la política lingüística en poblaciones superiores a 10.000 habitantes y, a continuación, hizo públicos los resultados de dicho estudio.

En esta legislatura Kontseiluak quiere realizar esa misma medición en poblaciones con menos de 10.000 habitantes y esa es la propuesta que ha dirigido al ayuntamiento de Legazpi. Con dicha medición conoceríamos la situación del municipio desde el punto de vista lingüístico y la Comisión de Euskera piensa que

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/03/26



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

26/03/2008

ere, horrela jakin dezakegu bide onetik goazen euskararen normalizazio bidean edo hutsuneak non ditugun, etorkizunean horietan ahaleginak egiteko. Hori dela eta, Euskara batzordeak neurketa hori egitearen alde egin du eta gauza bera egitea proposatu dio Osoko Bilkurari.

Beraz, Legazpiko hizkuntza politikaren 1. Neurketa egiteko Kontseiluak egin duen proposamena onartua izatea espero du Euskara Batzordeak.

Gaia bozkatu ondoren, guztiek aho batez onartu dute proposamena.

HIRGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK:

5. Bidezkoa bada, Legazpiko Hiri-Antolamendurako Plan Orokorrean ingurumen inpaktuaren behin betiko txostenaren justifikazioa onartzea.

Alkateak hartu du hitza. Gai hau pasa den Hirigintzako Batzordean sakondu zen. Legazpiko Hiri-Antolamendurako behin betiko onarpenari dagokion akordioan ez genuen orain proposatzen den erabakia hartu. Azken finean, eranskin baten bitartez aipatu Plan Orokorrak ingurumenaren gaineko eraginari buruzko txostena betetzen duela justifikatzea da helburua.

Hirigintza Batzordeak honako irizpen hau onartu zuen:

1.- Legazpiko Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra behin betiko onartzearen erabakiari dagokion eranskina onartzea. Aipatu eranskinean Plan Orokorrak ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txostena betetzen duela ziurtatzen da.

2.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Gaia bozkatuta, irizpena aho batez onartu da.

ese dato es muy interesante ya que, de esa manera, podemos saber si vamos por buen camino en nuestro quehacer de normalización o si bien tenemos que reconducir algunas medidas. Siendo ello así, la Comisión de Euskera es partidaria de realizar esa medición siguiendo las pautas marcadas por Kontseilua y solicita al Pleno de la Corporación que también se muestre dispuesto a ello”.

Por tanto, esperamos que sea aprobada la propuesta realizada por Kontseiluak de realizar la primera medición de la política lingüística de nuestro municipio.

Sometida la cuestión a votación la misma es aprobada por unanimidad.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

5. Aprobación, si procede, de la justificación del cumplimiento del informe definitivo de impacto medioambiental en el Plan General de Ordenación Urbana de Legazpi.

Toma la palabra el Alcalde. Este tema fue objeto de análisis en la pasada Comisión de Urbanismo. El acuerdo que se propone ahora tenía que haberse producido junto al acuerdo de aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana de Legazpi. En definitiva, se trata de justificar a través de un anexo el cumplimiento por parte del Plan General del informe definitivo de impacto medioambiental.

La Comisión de Urbanismo emitió el siguiente dictamen:

1.- Aprobar el anejo al acuerdo de aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana de Legazpi relativo al cumplimiento del informe definitivo de impacto ambiental por dicho Plan General

2.- Publicar el presente acuerdo en Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Sometida la cuestión a votación, el dictamen es aprobado por unanimidad.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/03/26



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

26/03/2008

LANGILEGOA:

**6. Bidezkoa bada, 2008. urterako
plantilla organikoa eta langileen lanpostuen
zerrenda onartzea.**

Gai hau ere pasa den Pertsonaleko Batzordean aztertu zen. Urtero bezala Osoko Bilkurara urteko plantilla organikoa eta langileen lanpostuen zerrenda ekartzen da. Laburbilduz, langileen lanpostuen zerrendak berrikuntza hauek dakartza:

* Xele Inza erretiratu ondoren, hutsik geratu da 20301 lanpostua.

* 30107 lanpostua, Hirigintza eta Nekazaritza Teknikariarena, behin-behinekoz hornitua dago zerbitzu eginkizunetan baina hutsik dagoen lanpostu bat da.

* 60101 lanpostua, Udaltzaingoko lehen agentearena, 2008ko langileen zerrendan amortizatzeko zegoen baina aurtengo zerrendan mantendu egingo da. Lanpostuaren funtzioak aldatu egingo dira, kontuan izanda ofizial ondokoaren lanpostua urte bukaeran hornituko dela.

* Pasa den urtean sortu ziren Udaltzaingoko bi lanpostuak sartu dira.

* Soldaten mailak egokitu dira.

* Saikapen taldeak egiterakoan, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 3. Xedapen Iragankorraren 2. puntuari jasotakoa hartu da kontuan.

Personal batzordeak ondoko bi irizpen onartu ditu:

1.- Legazpiko Udalaren 2008. urteko plantilla organikoa onartzea.

2.- Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

1.- Legazpiko Udalaren 2008. urteko langileen lanpostuen zerrenda onartzea.

PERSONAL:

**6. Aprobación, si procede, de la plantilla
orgánica y de la relación de puestos de
trabajo para el año 2008.**

Este tema se trató en la Comisión de Personal. Como cada año se presentan al Pleno la plantilla y la relación de puestos de trabajo de cada año. Las novedades más destacadas en la relación de Puestos de Trabajo para el año 2008 son las siguientes:

* Al jubilarse Xele Inza, el puesto nº 20301 queda vacante.

* El puesto código 30107 Técnico de Agricultura y Urbanismo está cubierta provisionalmente en comisión de servicios, pero realmente es un puesto vacante ya que no está cubierto definitivamente.

* El puesto código 60101 Agente Primero de la Policía Municipal ha pasado de a amortizarse a estar prevista con una readecuación de sus funciones teniendo en cuenta que se prevé que para finales de 2008 el puesto de suboficial sea definitivamente cubierto.

* Se han insertado los puestos de nueva creación de la Guardia Municipal, 60109 y 60110 aprobados en el Pleno del año pasado.

* Se han adecuado los niveles a las valoraciones de puestos de trabajo habidas.

* A la hora de establecer los Grupos de clasificación se ha respetado lo prescrito en la Disposición Transitoria 3ª punto 2º del Estatuto Básico del Empleado Público.

La Comisión de personal aprobó los siguientes dictámenes:

1.- Aprobar la plantilla orgánica del Ayuntamiento de Legazpi para el año 2008.

2.- Publicar el acuerdo en el Boletín oficial de Gipuzkoa.

1.- Aprobar la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Legazpi para el año 2008.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/03/26



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

26/03/2008

2.- Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du hitza eta aurkeztu den plantilla organikoan zergatik ez diren Langile Publikoaren Oinarritzko Estatutuan ageri diren Sailkapen Taldeak jaso galdetu du. Idazkariak plantilla organikoa Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera egituratu dela erantzun du.

Irizpenak erabakitzeko botoetara jo ondoren, bertaratutakoen aho batez onartu dira.

ALKATETZA:

7.Olaria saria.

Alkate jaunak hartu du hitza. Urtero bezala Osoko Bilkurak Olaria saria eman behar du. Horretarako, Udalaren ohore eta aipamen berezien araudiak ezarritakoa bete da. Horrela, 2008ko martxoaren 6an epaimahaia bildu zen eta aurkeztutako hautagai guztien artean bozketa egin ondoren, 3 hautagai geratu ziren: Santikutz Abesbatza 7 botorekin, Telleriarteko Txirrindulariak 4 botorekin eta Mirandaolako olagizonak 3 botorekin. Gero beste bozketa bat egin zen finalista guztien artean eta, azkenik, Olaria saria Santikutz Abesbatzari ematea proposatu da.

Osoko Bilkurak, aho batez erabaki du Olaria Saria Santikutz Abesbatzari ematea.

8. Luzatu diren dekretuen berri ematea.

Alkateak emandako dekretuen berri eman du .

MOZIOAK

9. Isaías Carrasco erahilketaren ildoan PSE-EEK aurkeztutako erakunde adierazpena.

Oscar Murillo jaunak aipatu erakunde-adierazpena irakurri du. Adierazpen hori aktari erantsi zaio.

Segidan, Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza. Bere taldea abstenitu egingo dela esan du

2.- Publicar el acuerdo en el Boletín oficial de Gipuzkoa.

Toma la palabra Iñaki Sánchez para preguntar porque en la plantilla orgánica no figuran los Grupos de Clasificación del Estatuto Básico del Empleado Público. El Secretario contesta que la plantilla orgánica la tenemos configurada de acuerdo con la Ley de Función Pública Vasca.

Se someten los dictámenes a votación aprobándose por unanimidad de los presentes.

ALCALDIA:

7. Premio Olaria.

Toma la palabra el Sr. Alcalde. Como todos los años el Pleno ha de conceder el premio Olaria. Se ha respetado lo establecido en Reglamento Especial de Honores y Distinciones del Ayuntamiento de Legazpi. El 6 de marzo de 2008 se reunió el jurado y entre todas las candidaturas presentadas los finalistas fueron Santikutz Abesbatza con 7 votos, Telleriarteko Txirrindulariak con 4 votos y los ferrones de Mirandaola con tres. Luego se hizo una votación entre todos los finalistas, proponiéndose la concesión del premio Olaria a Santikutz Abesbatza.

El Pleno, por unanimidad acuerda la concesión del premio Olaria a Santikutz Abesbatza.

8. Dar cuenta de los decretos dictados.

El Alcalde da cuenta de los decretos dictados.

MOCIONES

9. Declaración institucional presentada por el PSE-EE en relación con el asesinato de Isaías Carrasco.

Óscar Murillo da lectura de la declaración institucional. Se incorpora como anexo al acta.

Toma la palabra Ane Urkiola. Su grupo se va a abstener, han presentado junto a EA la

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/03/26



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

26/03/2008

eta EA talde politikoarekin batera EUDELen adostutako mozioa aurkeztu du.

Iñaki Sanchez zinegotziak berak ordezkatzan duen taldearen jarrera azaldu du. Berak nahiago zuela esan du idatzi baterakoiagoa aurkeztea, adostasun gehiago jasoko zuen idatzia. Ez du EAJ eta EA taldeek aurkeztu duten mozioaren botazioan parte hartuko. Adierazpenaren giza atalari dagokionez, bere gaitzespena azaltzen du zuriketarik gabe eta inguru-mingururik gabe. Azken zatiko atal politikoari dagokionez, bai esaten du baina ñabardurez; Legazpiko talde sozialistak ezagutzen ditu dagoeneko ñabardura horiek baina ez ditu azalduko Isaias Carrasco oroimenarekiko errespetuz.

Segidan, Juan Ramon Larrañaga zinegotziak hartu du hitza eta erakunde-adierazpenari eta EAJ eta EA taldeek aurkeztutako mozioari baietz esango diela esan du. Aurkeztu den mozio hori ez da mozio alternatiboa EUDEL erakundearen jarrera erakusten duen mozioa baizik. Egoera hau oso gogorra dela esan nahi du eta mahai honetan ezkerari eta eskuinari buruz gauza asko esan diren arren, garbi dago arazoa beste bat dela.

Ondoren Ana Salinero zinegotziak azaldu du bere jarrera. Adierazpenaren alde egin du zalantzarik gabe.

Segidan, Erramun Uribeetxeberria zinegotziak hartu du hitza EAE talde politikoaren izenean. Legazpiko ezker abertzaleen taldeko zinegotziek egiazko doluminak eta elkertasuna azaldu nahi dio Isaias Carrasoren familiari eta gertukoei. Gertakari horiek, edozein ekintza bortitz bezalaxe, agerian uzten dute eszenatoki demokratiko baten beharra, herri honi dagozkion eskubideen eta askatasunaren onarpenean oinarrituko den eszenatokia.

Euskal Herria urte asko daramatza etengabe atsekabea sortzen duen gatazkaren gogortasuna jasaten. Gatazkaren sustraletara joan behar dugu, alde bakarraren gaitzespenak ez baitu gatazka konpontzen. Marko demokratikopean Euskal Herria eraikitzeko bidea irekiko duen akordio politiko batek bakarrik lortuko du gatazkari irtenbidea ematea.

moción consensuada en EUDEL es más adecuada.

Iñaki Sánchez explica la postura del Grupo Político que representa. Personalmente le hubiera gustado que se hubiera presentado un escrito más unitario que hubiera recabado más consensos. No va a entrar a votación a la moción presentada por PNV y EA. Decir que con respecto al apartado humano de la declaración, manifiesta su condena sin paliativos ni ambages. Con relación al apartado más político de la parte final, da un sí con matices, esos matices ya los conoce el Partido Socialista de Legazpi pero no los va a exponer por respeto a la memoria de Isaias Carrasco.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga para anunciar su voto afirmativo a la declaración institucional y a la moción presentada por el PNV y EA, ésta última no es una moción alternativa, es una moción que muestra la postura de EUDEL. Simplemente quiere constatar que es durísima esta situación y lo que es evidente es que en esta mesa se ha hablado de izquierdas y derechas pero el verdadero problema es otro.

Ana Salinero también quiere hacer ver su postura. Da todo el apoyo a la declaración.

Toma la palabra el concejal del Grupo Político de ANV, Erramun Uribeetxeberria. El grupo de concejales de la izquierda abertzale de Legazpi expresamos nuestro más sincero pésame y solidaridad con la familia y allegados de Isaias Carrasco. Estos hechos, al igual que toda acción violenta, dejan al descubierto la necesidad de alcanzar un escenario democrático, basado en el reconocimiento de los derechos y libertad que corresponden a este pueblo.

Euskal Herria lleva ya muchos años soportando la dureza de un conflicto que continuamente genera aflicción. Tenemos que ir a la raíz del conflicto, pues la condena hacia solamente una parte no soluciona el mismo. Solamente, un acuerdo político que abra el camino para la construcción de Euskal Herria bajo un marco democrático, logrará dar una

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/03/26



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

26/03/2008

salida a este conflicto político.

Orain etengabeok dira ezker abertzaleak ekintza bortitz horiek gaitzesteko eskariak. Eskari horien helburua ezker abertzalea erasotzea, kriminalizatzea eta eszenatoki politikitik kanpo uztea da; aldiz, ez da gatazka armatuan eta politikoan sakontzen, arazoari benetako konponbidea emateko. Alde horretatik, ezker abertzaleak mahai gainean jartzen duen proposamena demokratikoa eta egingarria da.

Erantzukizun handiko garaia da. Ez dugu sekula gure herriaren bake-gogoarekin eta askatasun-gogoarekin jolastuko eta ez dugu gogo hori manipulatu. Gure herriaren alde lan egiten jarraituko dugu eta, nola ez, behin betikoz gatazka politikoari eta armatuari eta horren ondorioei konponbidea emango dien akordio politikoa lortzearen alde egingo dugu. Lan egiten jarraituko dugu, hori baita Euskal Herriko gizartearen gehiengoak nahi duena eta gure herriak merezi duena.

Udal honek Isaias Carrasco jaunarena azken ekintza bortitza izatea espero du eta egin ahal dezakeen guztia egingo du, behin behingoz eta ahal bezain pronto, bizi dugun gatazka konpontzea ahalbidetuko duen akordio politikoa lort dadin.

Mozioa erabakitzeke botoetara jo ondoren, emaitza hauekin onartu da: aldeko 7 boto (3 EA, 2 PSE-EE, 1 EB-Berdeak eta 1 atxiki gabeko zinegotzia), aurkako 3 boto (EAE taldea) eta 3 abstentzio (EAJ).

Ane Urkiola zinegotziak EAJ eta EA taldeek aurkeztu duten mozioa irakurri du. Aktari erantsi zaio.

Mozioa erabakitzeke botoetara jo ondoren, emaitza hauekin onartu da: aldeko 9 boto (3 EAJ, 3 EA, 2 PSE-EE eta 1 atxiki gabeko zinegotzia), aurkako 3 boto (EAE taldea) eta Iñaki Sanchez Ezker Batua taldeko zinegotziaren abstentzioa.

10. Eskariak eta galderak

Ahora son incesables las peticiones a la izquierda abertzale para que condene estas acciones violentas. Esas peticiones tienen como objetivo la persecución, criminalización y como no, dejar fuera del escenario político a la izquierda abertzale, lejos de ahondar en el conflicto armado y político en busca de soluciones reales al conflicto. En ese sentido la propuesta que la izquierda abertzale pone sobre la mesa es democrática además de realizable.

Son tiempos de grandes responsabilidades. Jamas jugaremos y mucho menos manipularemos las ganas de paz y libertad de nuestro pueblo. Nosotros seguiremos trabajando por nuestro pueblo y como no por la consecución de un acuerdo político que de solución para siempre al conflicto político y armado y a todas sus consecuencias. Trabajando, pues es el querer de la mayoría social de Euskal Herria y por que es lo que nuestro pueblo se merece.

Este Ayuntamiento, expresa su más firme pretensión para que el de Isaias Carrasco sea el último acto de violencia y pondrá todo lo que esté a su alcance para que de una vez por todas, y en la mayor brevedad posible se llegue a un gran acuerdo político del cual salga la solución para siempre del conflicto que vivimos.

Se somete la moción a votación, aprobándose la misma con 7 votos a favor (3 EA, 2 PSE-EE, 1 EB- BERDEAK, 1 concejala no adscrita), 3 en contra (Grupo Político ANV) y 3 abstenciones (PNV).

Ane Urkiola da lectura de la moción presentada por PNV y EA. Se adjunta como anexo al acta.

Tras someterla a votación, se aprueba la misma con 9 votos a favor (3 PNV, 3EA, 2 PSE-EE 1 Concejala no adscrita), 3 votos en contra (Grupo Político de ANV) y la abstención del Concejal de Ezker Batua – Berdeak Iñaki Sánchez).

10. Ruegos y preguntas.

9tik 8

UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA 2008/03/26	 LEGAZPIKO UDALA	ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL 26/03/2008
---	---	--

Alkate jaunak datorren apirilaren 2an ULMA PRECINOX enpresaren instalazioak inauguratuko dituztela jakinarazi du eta ekitaldi horretara joateko gonbitea luzatu die bertaratu diren guztiei.

El alcalde quiere invitar a todos y todas las presentes a la inauguración que tendrá lugar el 2 de abril de las instalaciones de ULMA PRECINOX.

Alkateak, arratsaldeko 20:10 direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 20 horas y 10 minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

<p>Akta hau 2008/05/07an egindako bileran onartu zen:</p> <p><input type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día 07/05/2008:</p> <p><input type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p>Jon Mikel Garagarza Roteta Idazkaria</p>	<p>Xotero Plazaola Odriozola Alkatea</p>